



## **Gipuzkoako Futbol Federazioaren lehiaketak garatzeko aplikazio-protokoloa.**

Emakumezkoen eta gizonezkoen Ohorezko Erregional Mailan; emakumezko eta gizonezko Gorengo Mailan; Ohorezko Jubenil mailan eta gizonezko Ohorezko Kadete mailek lehiaketa bi faseetan jokatuko dute. Emakumezko Ohorezko Kadeteek, aldiz, fase bakar batean jokatuko dute.

Lehiaketan gerta daitezkeen gorabeherak aurreikusi ezinak direla kontuan hartuta eta COVID-19 aren ondorioz ezarritako protokoloek eragin ditzakeen konfinamenduak direla eta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren jarduneko Zuzendaritza Batzordeak honako hau erabaki du:

1.- Lehentasuna ematea lehen faseko partida guztiak amaitzeari, eta, beharrezkoa izanez gero, egutegiaren datak luzatzea, lehiaketa bi faseetan jokatu duten kategorian guztietan. 2020ko irailaren 17ko Batzar Orokorrean proposatu eta onartutako lehen faseko lehiaketen egutegiak partidurik gabeko asteburu edo jaiegun batzuk aurreikusten ditu, eta horri esker, pandemiagatik atzeratutako norgehiagokak jokatu daitezke. Atxikitutako taulan, kategorian bakoitzean jardunaldi librean kopurua jasotzen da, atzeratutako jardunaldiak jokatzeko lehen fasearen garapenean.

2.- Lehenengo fasea amaitzea lehenetsi gabe ere ezin bada amaitu, honako hau xedatu da:

2.1.- Lehen fasea.

- a) Talde guztiak ezin badute fase honen % 70 jokatu, denboraldia baliogabetzat joko da.
- b) Talde guztiak lehen fasearen % 70 gutxienez joka badezakete, baina guztiak ezin badute fase horren % 100 jokatu, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokatuako partiden artean lortutako puntu kopurua, fase honetako behin betiko sailkapenak zehazteko. Berdinketa gertatuz gero, berdinduta dauden taldeen aldeko eta kontrako golen aldea erabiliko da.

2.2.- Bigarren fasea

- a) Bigarren faseko partiden % 70 gutxienez jokatzetik ez badago, baliogabetzat joko da, eta, beraz, behin betiko sailkapenei lehen faseko sailkapenak aplikatuko zaizkie, lehenengo faseko
- b) puntuan zehaztutako irizpideei jarraituz, igoseretarako eta jaitsieretarako.
- b) Talde guztiak bigarren fasearen % 70 gutxienez jokatzetik lortuko balute, baina denek ezin badute fase horren % 100a jokatu, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokatuako partiden artean lortutako puntu kopurua, fase honetako behin betiko sailkapenak zehazteko. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, aldeko eta kontrako golen arteko aldea erabiliko da.

3.- Fase bakarreko kategoriak.

Fase bakar batean jokatu den Emakumeen Ohorezko Kadete mailari dagokionez, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Talde guztiak ezin badute gutxienez beren kategoriari dagozkion partiden % 60 jokatu, lehiaketa baliogabetzat joko da.
- b) Talde guztiak gutxienez partiden % 60 jokatu ahal badute, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokatuako partiden artean lortutako puntu kopurua. Berdinketaren bat gertatuko

balitz, aldeko eta kontrako golen alde erabiliko litzateke. Kasu honetan sailkapena behin betikoa izango litzateke igoerak eta jaitsierak zehazteko.

### **Kontuan hartu beharrekoak:**

- Jokatu ezin diren partidak Lehiaketa Batzordeak ezarritako data baino lehen berreskuratu beharko dira, bertan behera utzi diren hurrenkeran, ordena hori aldatu ahal izango da Federazioaren baimenarekin eta COVID-19tik eratorritako arrazoiengatik. Partidarik gabeko asteburuak edo jaiegunak kontuan hartzeko ahalegina egingo da.
- Konfinatuta egon den talde batek hurrengo partida jokatu beharko du, baldin eta konfinamendua asteazkena (barne) baino lehen altxatzen bada, ostegun eta ostiralean saioen bat egiteko denbora daukala ulertuta.
- Klub bakoitzeko COVID arduradunak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Federazioari kasu positibo bat edo konfinamendu masibo bat duenean, kaltetutako pertsonen kopurua eta Osakidetzak konfinatutako pertsonen normaltasunera itzultzeko eman zaizkien epeak zehaztuz.
- Talde batek atzeratutako jardunaldiari aurre egin ahal izango diola ulertuko da dagokion taldeko federazioan izena emandako jokalarien % 70 gutxienez duenean.

Azkenik, berrikuntza hauek guztiak eta edozein zalantza azaltzeko datorren asteazkenean, urriaren 14an bideokonferentzia bidez klub guztiekin bilera egingo dela jakinarazten da. Hurrengo orduetan bidaliko da bilerararako sarbidea.

Donostian, 2020ko urriaren 12an